

Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreko jarduera % 4,1 hazi da 2021eko hirugarren hiruhilekoan


Etxegintza % 3,9 hazi da, eta Obra Zibila % 5,1

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntza-jarduerak % 4,1eko urte arteko hazkundea izan du 2021eko hirugarren hiruhilekoan, termino nominaletan, egutegi-ondorioak atera ondoren.

Hiruhilekoan Eraikuntzaren sektoreak urte artean izaniko hazkundea zor zaio *Obra Zibilaren* portaerari (% 5,1eko igoera izan du) eta *Etxegintzarenari* (% 3,9 igo da 2020ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta).

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Aurten, orain arte, sektoreak % 5,9ko igoera izan du bere jardueran, 2020ko aldi metatu berarekin alderatuta. *Etxegintzaren* kasuan, urteko metatua % 6,3 hazi da, eta *Obra Zibilekoa*, berriz, % 3,5.

Sektorearen 2021eko hirugarren hiruhileko honetako jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, behin urtaroen eraginak zuzenduta, % 1,3ko igoera ikusten da. *Etxegintzak* hiruhileko arteko

bilakaera positiboa izan du, % 0,1ekoa, eta *Obra Zibilak* % 9,4 egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azkenik, eta urtaro-eraginik gabeko terminoetan, Eraikuntzaren sektoreko enplegatuen kopurua % 0,3 jaitsi da 2021eko hirugarren hiruhilekoan, 2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Eraikuntzaren koitunturaren Indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak. III/2021

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	III 2021/III 2020	At/At-1	III 2021/II 2021	II 2021/I 2021
Produktzioaren Indizea	4,1	5,9	1,3	-0,6
Eraikuntza	3,9	6,3	0,1	-0,7
Obra zibila	5,1	3,5	9,4	-0,2
Landunen Indizeak	-	-	-0,3	1,0

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koitunturako indizea

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koituntural honetan eta beste indize ekonomiko koituntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaian duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

2021eko hirugarren hiruhilekoko EKIren estaldura **% 93,7koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62